

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Kasares oinetxea

Kasares Altza herriko barroko garaiko oinetxe ederra bat da -agian ederrena-. Ez oso aspaldiko garaitan oraindik soro eta belardi emankorrez inguratua zegoen, gaur berriz etxe eder honen inguruko parajea auzo-etxez beteta dago. *Kasares* -Arzakekin batera- izango da nire ustez Altzako oinetxe eta abizen garrantzitsuena herri honen historiaren hasieratik azaltzen baita. XIV. mendean «Estibaús» izeneko zelaian (zelai hori gaur Elizalde edo Isturiz Aundi deituriko etxea dagoen orubean zegoela dirudi) biltzen ziren herritarrak. Ordurako han izango ziren kasarestarrak. Beranduago 1620. urtean Altzako oinetxe gehienetako ordezkariak biltzen dira Batzarrean zimitorioan. Han zegoen «Juan de Casares» jauna Kasares oinetxe nagusia, Arzak, Arriaga, Zapiain eta beste altzatar askorekin batera.

Rikardo Izagirre donos-



Kasares oinetxeako aurrealdea.



Kasares oinetxe
harmarria.
«AQUIES CASARES»
irakur daiteke.

tiar historiagile eta toponimista handiaren datuen arabera, 1832. urtean «Vicente Casares» jauna zen etxe boteretsu honen jabea. Garai hauetan auzoan dagoen *Tomase* XVI. mendeko etxe paregabea berriz «Isabel de Arzac» anderearen jabegoa zen. Kasarestarrak eta Arzaktarrak familia boteretsuak ziren eta beraiek, jakina, zituzten herrian kargurik garrantzitsuenak: alkate, erretore, errejidore... eta abar. Altzak, 1910. urtean «hiri» titulua eskuratu zuen. Garai horretan, «Segundo de Casares» jauna zen herriko alkatea.

Auzune berriak eraiki zituztenean, *Kasares* utzia gelditu zen egoera penagarrian. Bazirudien betiko galdua izango zela baina hondakinetatik berriz ere altxaturik hor agertzen da harro Kultur Etxe dinamiko batean bihurtua.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

ARGITAN

Pasteletan maisu

MIKEL GALPARSORO

Urtarrilaren 19ko gauean
DONOSTIA ARGITAN


Erregina Errejentea 7 • Tfnoa.: 42 90 40

SOINU ALAI

AKORDEOI ESKOLA - SOLFEOA

Kromatikoa
eta trikitixa

Esku soinua,
pandereta
edo trikitixa
ondo ikasteko
hemen duzu
zure aukera.



Madril hiribidea 24 • Tfnoa.: 47.00.01